OU BLIN DA RRAK

Ados Teatroa

Literatura unibertsaleko klasikoa

JAMES JOYCE

Egokitzapena
José Antonio Vitoria
Garbi Losada

Zuzendaritza
Garbi Losada

Asier Hormaza
Naiara Arnedo
Lierni Fresnedo
Iñake Irastorza
Klara Mendizabal
Isidoro Fernandez
Ion Sagarzazu
Asier Sota

ADOS TEATROA · KULTURA · inaem · HARROBIA · SAR BE

"…eta nik uste dut arrakasta horren atzean bi faktore daudela: muntaiaren oinarrian izenburu famatu hau egotea —Irlanda eta Euskal Herriaren balizko antzekotasunak tarteko— eta taula gainean aktore sendo sorta ikusteako aukera. Alde horretatik, esan beharra dago ekipo trinkoa eratu dela haien guztien artean… (…) Argi dago haien guztien ekimenez aspaldian ikusten ez genuen antzezlan ederretariko bat oparitu digutela."

Agus Perez. Berria

"Dirige Garbi Losada un elenco veterano, solvente, y aclara ideas, situaciones y tipos, sintetiza bien el diálogo, y se apoya en la luz y un hábil dispositivo de cortinas y proyecciones de transición, junto a la música y el canto ambientales. El pulido trabajo pone en euskera alta comedia de situación, inhabitual en el repertorio. (…) En todo caso, una experiencia."

Pedro Barea. El Correo

Literaturaren istorian idatzi den testu onenetariko bat.

Antzerkira egokitzeko arrazoiak:

“Dublindarrak” ("Dubliners"), James Joyce-n lan paregabea, literatura unibertsalaren istoriako kontakizun onenetako bat izan arren ez da ia antzerkira egokitu. Bere egunean Umberto Eco-ren “El nombre de la rosa” edo Tom Sharpe-ren “Wilt” lanen egokitzapena egin genuenean antzera, erronka berri bati aurre egin diogu “Dublindarrak” lanarekin.

Bertan, Joyce-k kontakizun sinple baina sakona egin zuen, bizitzaren suntsikortasuna, gazte garaiko maitasun galduak eta oroimin eta iruzurrak zikindutako bizitza batzuen inguruan.

Bestalde, Joyce-n lana domeinu publikora pasatzeak gidoia eta testua errespetu handiz baina mugarik gabe lantzea ahalbidetu digu eta honek proiektua erakargarriagoa eta eskuragarriagoa bihurtu du.

James Joyce

Idazlea

Dublin, 1882ko otsailak 2 – Zurich, 1941eko urtarrilak 13.

Idazle irlandarra, mundu mailan ezaguna, XX. mendeko eragin handiko idazle bilakatu zen *Ulises* (1992) maisu-lanarekin eta ondoren ere *Finnegans Wake* (1939) lan polemikoarekin. *Dublindarrak* (1914) istorio sorta ere aintzat hartua izan da eta baita *Artista nerabe baten erretratua* (1916) eleberri autobiografikoa ere.

Joyce modernismo anglosaxoia izeneko abangoardiako literatur korrontearen ordezkari nagusietako bat izan da, T. S. Eliot, Virginia Woolf, Ezra Pound edo Wallace Stevens-ekin batera.

Nahiz eta heldu-aroaren zati nagusiena Irlandatik kanpo eman, idazle honen unibertso literarioa bere jaioterrian, Dublinen, sustraituta dago eta hiri honetan kokatzen ditu bere lanetako eszenatokiak, pertsonaiak eta kontakizunak. Irlandako eliza katolikoarekin izandako erlazio zaila fikzioan oso ondo islatzen du bere kontakizunetako alter ego-ek bizi dituzten barne-gatazken bitartez.

Joyce-rengan nabarmentzekoa da bere lanetan egiten duen gizakiaren egiazko irudikapena, sutila. Hizkuntza erabiltzeko duen maisutasun eta forma literario berriak garatzeko ahalmenagatik, XX. mendeko literaturaren istorian pertsonaia erabakigarria izan da.

Jakitun izan gabe, jende ugarik irakurtzen ditu Joyce-n liburuak. Izan ere, literaturan hasi zuen iraultza hain izan zen garrantzitsua, ondorengo idazle gutxik ihes egin ziotela bere eraginari. Horregatik, Joyce-n eragina aurki dezakegu mende bukaerako fikzio-liburu askotan.

IDAZLANAK:
Ganbera musika (Chamber Music), 1907.
Dublindarrak (Dubliners), 1914.
Artista nerabe baten erretratua (Portrait of the Artist as a Young Man), 1916.
Erbesteratuak (antzezlana) (Exiles), 1918.
Ulises (Ulysses), 1922.
Sagar olerkiak edo penike batengatik olerkiak (Pomes Penyeach), 1927.
Collected Poems (1936, poesia)
Finnegans Wake, 1939.
Stephen Hero (Stephen heroia, 1904–06an idatzia eta 1944an argitaratua)
Letters of James Joyce Vol. 1 (gutunak, Ed. Stuart Gilbert, 1957)
The Critical Writings of James Joyce (kritikak, 1959)
The Cat and the Devil (haurrentzako liburua, 1964)
Letters of James Joyce Vol. 2 (Ed. Richard Ellman, 1966)
Letters of James Joyce Vol. 3 (Ed. Richard Ellman, 1966)
Giacomo Joyce (1907an idatzitako eta 1968an argitaratutako olerkia)
Selected Letters of James Joyce (Ed. Richard Ellman, 1975)
The Cats of Copenhagen (haurrentzako liburua, 2012)
Finn's Hotel (2013)

“Malkoz bete ziren Gabrielen begiak. Inoiz ez zuen emakume batengatik halakorik sentitu, baina bazekien sentimendu hura maitasuna zela. Malkoak ugaritzen joan zitzaizkion. Beste irudi batzuk ere baziren bere alboan. Gizonaren arima hildakoek bizi duten eskualde inguruan zebilen. Elurra zihaduen berriz ere. Logura, zilarrezko malutak kaleko argietan zeharka nola erortzen ziren ikusi zuen. Bai, egunkariak zuzen zeuden: Irlanda osoan elurra ziharduen.

Elurra ari zuen erdiguneko lautada ilunean, mendixka biluzietan; elurra ari zuen leun Allen urtegian eta mendebalderago, Shannon ibaiko ur nahasi eta ilunetan. Elurra baita Michael Fury lurperatuta zegoen mendixkako hilerri suntsituan. Lodi pilatzen zen gurutze eta hilarri okerren gainean, elorri-zuri lehorretan. Eta bere arima lo-kuluxka batean murgiltzen zihoan bitartean, kanpoan elurra ari zuen, leun, unibertsoaren gainean suabe, hildakoek eta bizidunek ikusiko zuten eguzkiaren azken gainbehera izango bailitzan.”

James Joyce. ‘Dublindarrak’

‘Dublindarrak’ kontakizunaren egokitzapen libre bat.



“Dublindarrak” (Hildakoak) kontakizunak bizitzaren gertakari batzuk islatzen ditu -maitasuna, ezkontza, pasioa, heriotza- eta haiei aurre egitera behartzen zaitu. Kontakizun gutxik dute gaitasun misteriotsu hori.

John Huston

Sinopsia eta pertsonaiak:

Jatorrizko kontaketa Dublinen kokatzen da, 1904. urteko Errege egunean. Adin eta sexu desberdineko maila ertain-altuko pertsonaia batzuk Morkan andereñoek bere egoitzan urtero antolatzen duten afarira iristen dira. Morkan andereñoak musika irakasleak dira eta gau-jaiak kutsu musikazalea dauka. Giroa ezinhobea da. Kanpoan elurra dihardu baina barrukaldean etxe-giro goxoa, janari atsegingarria, ohitura onak, lasaitasuna, anaitasuna eta umore ona harnasten dira.

Gonbidatuen artea Gabriel (anfitrioien iloba) eta bere emaztea Gretta daude. Guztiak afari eta gau-jai zoragarriaz disfrutatzen ari dira. Gaua bere bukaerara iritsi eta Gabriel eta Gretta alde egiteko puntuan daudenean, abesti bat entzuten da eta emaztea tristuraz betetzen da bat batean, gazte garaiko maitasun galdu bat gogora datorkiolako. Hildako batenganako maitasuna da, bere bizitza osatu duten beste gertakizun eta sentimendu guztiak baina indartsuagoa den maitasuna.

Itxuraz sinplea den kontakizunak, sakonean, Irlandak garai hartan bizi zuen paralisi moral eta espirituala dauka mintzagai. Metaforikoki hildakoen lurralde bezala erakusten digu herrialdea, non oroitzapenak egunerokotasuna baino biziago dauden eta hildakoek bizidunak menderatuta dauzkaten. Honen arabera, 1904.urteko gizartean bukaerak hasierak baino ugariagoak dira eta bizitza desagertzera kondenatutako bide bat besterik ez da. Hildakoak ez dira hilik daudenak soilik, pasioz bizitzen jakin ez dutenak, jolas eta limurtzeetan galdu direnak eta beren mundua erori eta erremediorik gabe atzetik erori direnak baizik.

Kontaketa agerian xumea da, esan liteke Errege eguneko jaia bitartean ez dela ezer edo ia ezer gertatzen (nahiz eta ezerez horrek laburbiltzen duen idazleak adierazi nahi duen guztia). Abestu, dantzatu, hitz egin, eztabaidatu, jan eta edan egiten da. Garrantzizkoa pertsonaien baitan gertatzen da, kaleko hotzaren kontzientziak eta elurrak etxe barruan gertatzen denari kutsu irreal bat ematen diolarik.

Gabriel protagonista gonbidatu “perfektua” da, anfitrioien iloba zentzuduna, brindisaren aurretik diskurtsoa botako duena, gizon sentikor eta kultoa. Grettarekin ezkonduta dagoen gizona eta familiako aita zuzena. Dena da perfektua, nahiz eta giroak kutsu dekadente eta artifiziala izan. Baina festa bukatzear dagoela, abesti baten doinuak Gretta negar egiteraino hunkitzen duela ohartzen da Gabriel. Zein sekretu gorde dezake emakume sentikor honek bere bihotzean? Maite duen gizon baten alboan egotera eraman duen sekretu bat, baina beharbada ez du beste hura maite izan zuen bezain beste maitatzen. Grettak Gabrieli ikusarazten dio bizitza guztia daramala bera maitatuz hil zen gizon baten dueluaren zama bere bihotzean eramaten.

Gabrielek galderak egin eta Grettak Michael Fury gazteakin bizitako maitasun istorioaren xehetasunak kontatzen dizkio. Michael gaixotu eta maitasunez hil zen Gretta gaztea Dublinera zihoala jakin zuenean. Pasioz betetako mutil gaztea, hiltzeraino gaixotzera iritsi zen bere maitearen leihopean abesti hori bera kantatzeagatik festaren gauaren antzerako neguko gau elurtsu batean.

Elurrak leun dihardu hildako eta bizidun guztien gainean.

Maitasunaren indarrak ez dauka mugarik eta Grettak sekretu asko isilarazi ditu denbora luzez indar horregatik. Asko sufritu du baina berea bezalako sekretuak hilobira eraman daitezkeela ere ikasi du, melodia batek txinparta piztu eta atzera bueltarik ez daukan sentimendu eztanda eragiten duen arte: Grettak negarrari ematen dio bere senarrak harrituta begiratzen dion bitartean. Inoiz berea izan ez zen gizon harekin gogoratzen da, bere albotik betirako alde egin zuen gizona. Bat-batean Gabriel bere existentziaren faltsukeriaz ohartzen da, bere sentimenduen itxurazko segurtasuna bukatu da, bere gainean erortzen den elurra Michael Fury maitalea dagoen hilerrian atsekabez diharduen elur bera da. Hil-ohial berak estaltzen ditu denak. Denak daude hilik.

“Helburua nire herrialdeko istoriaren moraltasunaren atal bat idaztea zen eta horretarako Dublin aukeratu nuen, paralisiaren zentroa iruditzen zitzaidalako”, dio idazleak.

Obran, oztopo eta kalteez kargatuta dagoen mundua hiltzear dago, baina ez da oraindik mundu berri bat eratu. Irlanda idiologia eta influentzia desberdinek astintzen zuten eta bere historia eta kulturaren bidegurutzean harrapatuta zegoen.

Aldaketaren malenkonia.

Inflexio-punto baten aurrean dauden bere pertsonaiak eta horrek bere existentziaren zentzua zalantzan jartzera eramaten ditu, bizitzak zentzua ba ote duen edo hari ikustezinen bitartez mugitzen diren txotxongilo hutsak diren galdetzen diote bere buruari.

Istorioan lagun talde kultu eta dotore bat etxe batean elkartzen da Errege eguna ospatzeko.

Pertsonaiak lotzen dituen malenkonia eta etsipena irlandako gizartea giltzapetzen zuen hilobiaren harlauza dira.

Ez dago irtenbiderik, baina Gabriel protagonistarentzat behintzat, bada beranduago bere erreakzioa eragingo duen kontzientziazio prozesu bat.

Elurrak inguratzen ditu, heriotzaren eta mugiezintasunaren sinboloak, garaiko gizarteak bizi duen asaldura isilduaraziz eta hildakoak eta bizidunak maila berean kokatuz.

Ez da irtenbiderik ematen baina arazoaren diagnosia egiten da. Zein da hurrengo pausoa? Bere emaztea uztea (hildakoak bizidunak baino gehiago maite dituen herrialdetik alde egitea)?

'Dublindarrak' testua Irlandako nazionalismoa bere goren aldian zegoenean idatzi zen (horren isla dira bere elkarrizketak), Irlandan nazio identitatearen bilaketa nagusi zen momentuan. Sentimendu lauso hau 1921eko uztaileko independentziaren deklarazioarekin finkatu zen Irlandan.

Istorioan kontatzen ez den Gabrielen hurrengo pauso hori, Joyce-k bere buruarentzako eta bere herrialdearentzako planteatzen duen pausoa da, bizi duen garaiaren amaiera islatuz. Hala, kontatzeko forma berriak bilatzea justifikatzen du, XIX. Mende bukaerako Irlanda klaustrofobikotik ihes egin nahian.

Fitxa artistikoa 'Dublindarrak'

Idazlea	JAMES JOYCE
Egokitzapena	GARBI LOSADA JOSE ANTONIO VITORIA
Zuzendaritza	GARBI LOSADA
Ekoizpen ejekutiboa	JOSÉ ANTONIO VITORIA
Azgiztapen diseinua	XABIER LOZANO
Eszenografia diseinua	GARBI LOSADA JOSE ANTONIO VITORIA
Musika	JAVIER ASIN
Jantzi diseinua	TYTTI THUSBERG
Banaketa	ADOS TEATROA

AKTOREAK (alfabeto-ordenean)

NAIARA ARNEDO, ISIDORO FERNANDEZ, LIERNI FRESNEDO, ASIER HORMAZA, IÑAKE IRASTORZA, KLARA MENDIZABAL, ION SAGARZAZU, ASIER SOTA

Garbi Losada

AUTOREA ETA ZUZENDARIA

- 'Lu et Le' (2016), Bernardo Atxagak idatzia. Musika Juan Carlos Perez. DSS2016 programaren barruan (Bakearen Itsasargia).
- 'Giza eskubideak taulara: lanerako eskubidea' (2016) Work in Progress moduan sortutako ikuskizuna. Barañaingo auditorioan landu zen arte eszenikoetako kolektibo eta kaleko jendearen arteko elkarlanean (langabetu taldeak). Ikuskizun honen helburua urte osoko prozesu baten bitartez Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala (XXI. Mendeko aldarrikapena) zabaltzea da.
- Ladydi Garcia (2016) euskarazko bertsioa. Jennifer Clement-en eleberriaren moldaketa. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- El chico de las zapatillas rojas / Zapatila gorridun mutikoa (2015). Keinuzko antzerkia (maskara). Sormen lana eta zuzendaritza.
- El hijo de la novia / Emaztegaiaren semea (2014). Fernando Castets eta Juan J. Campanella-ren filmearen moldaketa. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- Maitasunaren ostean maitasuna / El amor después del amor 2014. Testua eta zuzendaritza.
- El nombre de la rosa (2013). Umberto Eco-ren eleberriaren moldaketa. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- Susurradores / Xuxurlariak (2012). Kalerako ekintza poetikoa. Zuzendaritza.
- Wilt (panpina puzgarriaren hilketa) (2012). Tom Sharpe-ren eleberriaren moldaketa. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- La guerra de los Rose (2010) ADOS TEATROA. Warren Adler-en testuan oinarrituriko a. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- Jai-Alai. Dantza ikuskizuna. ADOS TEATROA eta AUKERAN DANTZA KONPAINIAREN elkar lana. Zuzendaritza.

Zuzendaritza eta egokitzapena

- Gernika. (2009). AUKERAN dantza taldearekin. Zuzendaritza.
- Emotikon. (2009). ADOS TEATROA. Dramaturgia eta zuzendaritza.
-Si ves a Lola dile que es rica / Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela (2008) ADOS TEATROA. Testua eta zuzendaritza.
-Secando charcos / Putzuak lehortzen (2008) AGUERRE TEATROA. Dramaturgia eta zuzendaritza.
- El jefe de todo esto (2007). ADOS TEATROA. Lars Von Trier-en filmean oinarriturikoa. Testua eta zuzendaritza.
- Bideak (Caminos) (2006). AUKERAN Dantza.
- El vendedor de tiempo. (2006). ADOS TEATROA. Fernando Trías de Bes-en bestseller-ean oinarriturikoa. Dramaturgia eta zuzendaritza.
- Como agua para chocolate (2004). ADOS TEATROA. Laura Esquivel-en eleberrian oinarriturikoa. Dramaturgia eta zuzendaritza.
- Einstein. (2005). ADOS TEATROA. Dramaturgia eta J. A. Vitoriarekin batera zuzendaritza.
- Las mujeres de verdad tienen curvas. (2003). ADOS TEATROA. Josefina López-en "Real women have curves" gidoiean oinarriturikoa. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- Boccaccio-ren Decamerón. (2004). ADOS TEATROA. Zuzendaritza eta egilea J.A.Vitoriarekin batera.
- Un ciego con una pistola (2003). Work in progress Bilboko BAD-erako. Egokitzapena eta zuzendaritza.
- Izena duen guztia omen da (2003). AUKERAN. Gidoia eta zuzendaritza. Cía de Danza AUKERAN. Guión y Dirección.
- Sopa de ganso. (2003). Kaleko ikuskizuna. ADOS TEATROA. Egilea eta zuzendaria
- John Wayneren laguna / El amigo de John Wayne. (2002). ADOS TEATROA. Egilea eta zuzendaria

- Desperrados (1998). ADOS TEATROA. Zuzendaritza eta egilea J.A. Vitoriarekin batera.
- Lamiak (1997). ADOS TEATROA. Egilea eta zuzendaria.
- La noche de bodas (1995). BEDEREN-1. Egilea eta zuzendaria.
- Robinson Crusoe (1994). ADOS TEATROA. Egilea eta zuzendaria.
- Adagio violentissimo (1992). TANTTAKA.Egilea eta zuzendaria.
- Oscar Wilde no tiene nombre (1992). Oscar Wilde-ren De profundis-en oinarritua. TANTTAKA. Egilea J. A. Vitoria. Zuzendaritza.
- Aguro - Rápido (1991). HIKA. Egilea eta zuzendaria.
- Como Hansel y Gretel (1991). E. Humperdinck-en HANSEL Y GRETEL operan oinarriturikoa . Testua eta zuzendaritza.
- Moon (1990). Donostiako orfeoi eskola. Kurt Weill-en OPERA DE TRES PENIQUES operan oinarriturikoa. Dramaturgia eta zuzendaritza.
- Ida y vuelta (1988). Producción: ISTRIPU. Egilea eta zuzendaria.
- Últimos pasos de un caballero andante (1987). ISTRIPU. Testua eta zuzendaritza. Gazte Antzerki Topaketako Irabazlea.

JASOTAKO SARIAK

- 2015. DONOSTIA SARIA. MAITASUNAREN OSTEAN MAITASUNA antzezlanagatik.
- 2014: Zuzendaritzarik Onena Teatro de Rojas Sarietan "El nombre de la rosa" antzezlanagatik.
- 2014. Ercilla Sarietako finalista MAITASUNAREN OSTEAN MAITASUNA antzezlanagatik
- 2014 Ikusleen Rodero saria Torrejón de Ardóz-eko emakume zuzendarien lehiaketan MAITASUNAREN OSTEAN MAITASUNA antzazlanagatik.
- 2014: Ercilla Sarietako finalista El NOMBRE DE LA ROSA antzezlanagatik.
- 2011. GETXOko AIXE SARIA antzerkigintzan eginiko lanagatik.
- 2010. MAX Saria euskarazko testurik onenagatik PUTZUAK LEHORTZEN antzezlanagatik.
- 2008: Torrejón de Ardoz-eko nazioarteko emakume zuzendarien bigarren saria SECANDO CHARCOS antzezlanagatik.
- 2005: BARNA HIRIKO LEHIAKETAko finalista Zuzendaritza eta obra onenaren alorrean "Las mujeres de verdad tienen curvas" antzezlanagatik.
- 2004: Toledoko TEATRO DE ROJAS Sarian finalista egilerik onenaren alorrean "El amigo de John Wayne" antzezlanagatik.
- 2004 MAX sarietan finaliasta egilerik onenaren kategorian KOKOROKO antzezlanagatik.
- 2004: HAROko antzezlan onenaren GARNACHA Saria. LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS antzezlanagatik.
- 2003: Torrejón de Ardóz-eko nazioarteko emakume zuzendarien lehen saria EL AMIGO DE JOHN WAYNE antzezlanagatik.
- 2003: Donostiako antzerki saria EL AMIGO DE JOHN WAYNE antzezlanagatik.
- 2002: Ercilla saria EL AMIGO DE JOHN WAYNE antzezlanagatik.
- 2002: DONOSTIA SARIA. LOTSAGABE / SINVERGÜENZAS antzezlanagatik.
- 2002 ARRIOLA saria. Antzerkigintzan eginiko lanagatik.
- 2001. ADEko zuzendaritza sarian finalista MANOLITO GAFOTAS ikuskizunagatik.
- 2001. MAX saria euskarazko testurik onenagatik. GUS ETA GASengatik.
- 2000. TXEMA ZUBIA Saria antzerkigintzan eginiko lanagatik.
- 1987. Gazte topaketetako lehen saria ÚLTIMOS PASOS DE UN CABALLERO ANDANTE antzezlanagatik.

Jose Antonio Vitoria



Ekoizpen exekutiboa eta egokitzapena

GIDOILARIA ETA ZUZENDARIA:

Vorvik, luzemetraia, Fernando Guillén-Cuervo, Amparo Larrañaga eta María Valverderekin. Málagako Sekzio Ofiziala 2005.

Hainbat laburmetrai eta bideoklipen gidoilaria eta zuzendaria: Vidas imaginarias (Euskal filmerik onenaren saria Bilboko Jaialdian 1991), Ciao amore, ciao, La buena madre, etb.

LUZEMETRAIEN GIDOILARIA (Osatu gabeko zerrenda):

- Santa Cruz, el cura guerrillero (1990), José Mª Tudurik zuzendurikoa.
- Chatarra (1991). Félix Rotetak zuzendua. 1991 urtean Mostra de Venecian Sekzio Ofizialerako hautatua.
- Norte, 1998. 2004 urteko Pilar Miró gidoi sarietan izendatua.
- Ione sube al cielo (1999), Joseba Salegik zuzenduriko luzemetraia.
- Glup, una aventura sin desperdicio (2003). Urte berean Goya Sarietako animazioko luzemetrairik onenetarako izendatua.
- El sexo de los ángeles (2012). Malagako Jaialdia 2012.
- El pan de los justos (2011), FILMANOVA INVESTerako luzemetraia. Aurre ekoizpen lanetan.
- La africana (2011), aurre ekoizpen lanetan dagoen luzemetraia.

TELEBISTAKO GIDOILARIA (Osatu gabeko zerrenda):

- Delirios de amor (1988), RTVE seriea.
- Adagio violentissimo (1993), ETBrako espazio dramatikoa.
- Amaren etxea (1994), ETBrako sit-coma.
- Gure familia eta beste piztia batzuk (1997), ETB seriea.
- Usandizaga y Ravel, unidos por un río (2001), dokumentala.
- Esencia de poder (2001), Tele 5rako eguneroko seriea.
- Arrayán (2006-07), Canal Sur-erako eguneroko seriea. (CECA Saria, Kalitateagatik Espiga de Oro Saria, Ondas Saria 2006, Malagako Zine Jaialdian zilarrezko Biznaga.).
- Pilotari (2007-2008, 1go eta 2. denboraldiak) ETBrako asteroko seriea.
- Rocío, casi madre (2007-2008, 3 denboraldiak) Canal Sur-erako seriea.
- Fuera de lugar (2008), TVE 1.erako komedia.
- Yo soy Bea (2008-2009), TELE 5rako eguneroko seriea.
- La vaca que llora (arte rupestre en el Tassili n´Ajjer) Saharako haitzuloetako artearen dokumentala.

ANTZERKI AUTOREA (Osatu gabeko zerrenda)

- Un extraño (1991). "Premio Europeo de Teatro 1994" rako izendatua. Calderón de la Barca Sarian izendatua. 2001ean kaleratua.
- Oscar Wilde no tiene nombre (1992). De Profundis eta Oscar Wilde-ren beste hainbat testutan oinarriturikoa.
- Adagio violentissimo (1992). Garbi Losadak idatziriko komedia.
-La Coraje (1997), H.J.Ch.Gimmelshausen-en La Pícara Coraje-n oinarriturikoa. Bertolt Brecht-en Madre Coraje-ri omenaldia bere mendeurrenean. 2001 urtean kaleratua.
- Desperrados (1998). Garbi Losada zuzendariarekin batera idatziriko antzezlana.
- Decameron (2004) Boccaccio-ren obraren egokitzapena Garbi Losada zuzendariarekin batera.
- Amo tu cama rica (2004) Emilio Martínez Lázaro-ren filmaren egokitzapena.
- Wilt (Panpina puzgarriaren hilketa/El crimen de la muñeca hinchable) (2012) Tom Sharpe-ren eleberrian oinarrituriko antzerkirako egokitzapena.
- El nombre de la rosa (2012) Umberto Eco-ren eleberrian oinarrituriko antzerkirako egokitzapena.
- Figuranteak (2013). Marie Jones-en "Stones in his pockets" eleberrian oinarrituriko antzerkirako egokitzapena.
- El hijo de la novia (2013). Fernando Castets eta Juan J. Campanella-ren filmean oinarrituriko antzerkirako egokitzapena.

ANTZERKI ZUZENDARIA:

- Sutargi (2002). Garbi Losadarekin batera idatzi eta zuzenduriko dantza ikuskizuna.
- Izena duen guztia omen da (2003). Garbi Losadarekin batera sortu eta zuzenduriko dantza ikuskizuna.
- Einstein (2005) Garbi Losadarekin batera idatzi eta zuzenduriko ikuskizun parte- hartzailea.
- Bideak (2006) Garbi Losadarekin batera sortu eta zuzenduriko dantza ikuskizuna.
- Emotikon (2009) Garbi Losadarekin batera sorturiko ehunezko arkitekturadun instalazioa.
- Gernika (2009) Garbi Losadarekin batera sortu eta zuzenduriko dantza ikuskizuna.
- Jai Alai (2010) Garbi Losadarekin batera sortu eta zuzenduriko kalerako dantza ikuskizuna.

IKUSKIZUNEN EKOIZPEN EXEKUTIBOA:

- 'Lu eta Le' (2016), Bernardo Atxagak idatzia. Garbi Losadak zuzendua. Musika Juan Carlos Perez. DSS2016 programaren barruan (Bakearen Itsasargia).
- 'Giza eskubideak taulara: lanerako eskubidea' (2016) Work in Progress moduan sortutako ikuskizuna. Barañaingo auditorioan landu zen arte eszenikoetako kolektibo eta kaleko jendearen arteko elkarlanean (langabetu taldeak). Ikuskizun honen helburua urte osoko prozesu baten bitartez Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala (XXI. Mendeko aldarrikapena) zabaltzea da.
- Ladydi Garcia (2016) Jennifer Clement-en eleberrian oinarriturikoa. Garbi Losadaren zuzendaritzapean. Ados Teatroa.
- Zapatila gorridun mutikoa (2015). Garbi Losadaren sormen eta zuzendaritza. Ados Teatroa.
- Figuranteak (2014). Marie de Jones-en eleberrian oinarriturikoa.
- Maitasunaren ostean maitasuna 2014. ADOS TEATROA.
- El nombre de la rosa (2013) Umberto Eco-ren eleberrian oinarriturikoa. Ados Teatroa.
- Emaztegaiaren semea / El hijo de la novia (2013) J.J Campanella-ren filmean oinarrituriko antzerki egokitzapena. ADOS TEATROA.
- Xuxurlariak (2012). Kalerako ekintza poetikoa. ADOS TEATROA.
- Wilt (Panpina puzgarriaren hilketa) (2012) Tom Sharpe-ren eleberrian oinarriturikoa. ADOS TEATROA.
- La guerra de los Rose (2010) Warren Adler-en testuan oinarriturikoa. Ados Teatroa.
- Jai Alai (2010). Aukeran Dantza Konpainia eta Ados Teatroak elkarlanean ekoizturiko dantza ikuskizuna.
- Einstein (2010). Antzokietara moldaturiko berrestreinaldia. Ados Teatroa.
- Emotikon (2009) Ehunezko arkitekturadun instalazioa, iluntasunean emango den zentzuen antzezlana.
- Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela (2008). Ados Teatroa.
- El jefe de todo esto (2007). Ados Teatroa. Lars Von Trier-en filmean oinarrituriko antzerkirako egokitzapena.
- El vendedor de tiempo (2006). Ados Teatroa. Fernando Trías de Bes-en eleberrian oinarrituriko antzezlana.
- Einstein (2005). ADOS TEATROA. Valencia-ko Museo de las Artes y las Ciencias-erako idatziriko antzezlan interaktiboa.

ADOS TEATROA

943 278 109 / adosteatroa@adosteatroa.com

Donostia Ibilbidea 102 - Pabellón 2. 20115 Astigarraga

www.adosteatroa.com